Bestelako Xedapenak

JAURLARITZAREN LEHENDAKARIORDETZA

3820

11/2009 EBAZPENA, apirilaren 14koa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariarena, Eusko Jaurlaritzak egindako zenbait hitzarmen, beherago zehaztutakoak, argitaratzea xedatzen duena.

Eusko Jaurlaritzak zenbait hitzarmen sinatu dituenez gero, publikotasun egokia izan dezaten, honako hau

EBATZI DUT:

Artikulu bakarra.– Ondoko hitzarmenen testua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea:

– Lankidetza-hitzarmena, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren, Arabako Foru Aldundiaren eta Osakidetzaren artekoa, Arabako Lurralde Historikoko egoitza-unitate soziosanitarioetan zerbitzu soziosanitarioak emateko dena. (I. Eranskina)

– Hitzarmena, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren eta Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen artekoa, etxebizitza eta gizarte gaietako politiketan herritarren partaidetzari loturiko ekintzak garatzeko dena. (II. Eranskina)

– Lankidetza-hitzarmena, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren eta Abadiñoko Udalaren artekoa, Bizkaian, Abadiñoko Udalerrian, Gaintza-Zelaieta aldean eraikiko diren 112 eta 42 babes ofizialeko etxebizitzen sustapenak esleitzeko dena. (III. Eranskina)

– Lankidetza-hitzarmena, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren eta Tolosako Udalaren artekoa, Tolosako Udalerrian, Gorostidi-Voith, Laskorain Goikoa, RC2 Ezkerralde Aldean eta Olarrain Sektorean babestutako etxebizitzak sustatzeko dena. (IV. Eranskina)

Vitoria-Gasteiz, 2009ko apirilaren 14a.

Jaurlaritzaren Idazkaritzako
eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendaria,
JOSÉ LUIS ERREKATXO LABANDIBAR.

Otras Disposiciones

VICEPRESIDENCIA DEL GOBIERNO

3820

RESOLUCIÓN 11/2009, de 14 de abril, del Director de la Secretaría del Gobierno y de Relaciones con el Parlamento, por la que se dispone la publicación de los convenios celebrados por el Gobierno Vasco, que se indican.

Habiéndose suscrito por el Gobierno Vasco varios convenios, y a los efectos de darles la publicidad debida,

RESUELVO:

Artículo único.– Publicar en el Boletín Oficial del País Vasco el texto de los siguientes convenios:

– Convenio colaboración con la Diputación Foral de Álava y Osakidetza-Servicio vasco de salud para la prestación de los servicios socio-sanitarios en las unidades residenciales socio-sanitarias del Territorio Histórico de Álava, que figura como anexo I.

– Convenio con la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea para el desarrollo de acciones de participación ciudadana en políticas de vivienda y asuntos sociales, que figura como anexo II.

– Convenio de colaboración con el Ayuntamiento de Abadiño para la adjudicación de las promociones de 112 y 42 viviendas de protección oficial a construir en el sector Gaintza-Zelaieta, en Bizkaia, en el término municipal de Abadiño, que figura como anexo III.

– Convenio de colaboración con el Ayuntamiento de Tolosa para la promoción de vivienda protegida en las áreas Gorostidi-Voith, Laskorain Goikoa, RC2 margen izquierda y Sector Olarrain, de dicho término municipal, que figura como anexo IV.

En Vitoria-Gasteiz, a 14 de abril de 2009.

El Director de la Secretaría del Gobierno
y de Relaciones con el Parlamento,
JOSÉ LUIS ERREKATXO LABANDIBAR.

I. ERANSKINA JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZAKO ETA LEGEBILTZARRAREKIKO HARREMANETARAKO ZUZENDARIAREN APIRILAREN 14KO 11/2009 EBAZPENARENA

Lankidetza-hitzarmena, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren, Arabako Foru Aldundiaren eta Osakidetzaren artekoa, Arabako Lurralde Historikoko egoitza-unitate soziosanitarioetan zerbitzu soziosanitarioak emateko dena.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko otsailaren 27a.

Alde batetik, Gabriel María Inclán Iribar jauna, Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko sailburua,

Bestetik, Xabier Aguirre López jauna, Arabako Foru Aldundiko Diputatu Nagusia,

Eta bestetik, Gloria Quesada Menéndez andrea, Osakidetza Erakunde Publikoko zuzendari nagusia.

Bakoitzari dagozkion, adieraziak geratu eta legez esleitu zaizkien karguak betez dihardute, elkarri erabateko gaitasuna aitortuta ondoko hitzarmena formalizatzeko,

ADIERAZTEN DUTE:

Erakunde bakoitzaren berezko eskumenetan oinarrituta, Osasun Sailak, Arabako Foru Aldundiak, orduko Gizarte Ongizateko Sailaren bidez, eta Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuak, 1998ko azaroaren 16an, lankidetzako Akordio Markoa sinatu zuten Arabako Lurralde Historikoko behar soziosanitarioei estaldura emateko. Akordio horren hirugarren klausulak biltzen duenez, Akordio Marko hori hitzarmen espezifiko eta partikularretan edo bestelako akordio eta protokoloetan oinarrituko da. Eta horietan guztietan, lortu beharreko helburuak, horretarako errekurtsoak eta aplikaziorako organo arduradunak bilduko dira.

Halaber, 2003ko urtarrilaren 30ean Eusko Jaurlaritzak, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiek eta Euskadiko Udalen Elkarteak (Eudel), Lankidetzako Hitzarmena sinatu zuten, Euskal Autonomia Erkidegoan laguntza sozio-sanitarioa garatzeko, hamargarren hizpaketan zehaztutakoaren arabera:

«Baliabide soziosanitario guztietan, edozein delarik ere jatorria, prestazioaren guztirako kostua bi modulutan zatitu behar da: bata, osasun-zerbitzuena eta bestea, gizarte-zerbitzuena.

Ahaleginak egin behar dira bi moduluen kostua estandarizatzeko eta haren zenbatekoa zuzenean lotzeko jasotako prestazioaren konplexutasunarekin, formula generikoak alde batera utzita: oheko edo egonaldiko batez besteko kostua».

ANEXO I A LA RESOLUCIÓN 11/2009, DE 14 DE ABRIL, DEL DIRECTOR DE LA SECRETARÍA DEL GOBIERNO Y DE RELACIONES CON EL PARLAMENTO

Convenio de colaboración con la Diputación Foral de Álava y Osakidetza-Servicio vasco de salud para la prestación de los servicios socio-sanitarios en las unidades residenciales socio-sanitarias del Territorio Histórico de Álava

En Vitoria-Gasteiz, a 27 de febrero de 2009.

De una parte, el Excmo. Sr. D. Gabriel María Inclán Iribar, Consejero de Sanidad del Gobierno Vasco,

De otra, el Excmo. Sr. D. Xabier Aguirre López, Diputado General de la Diputación Foral de Álava,

De otra, la Sra. Dña. Gloria Quesada Menéndez, Directora General del Ente Público Osakidetza,

Intervienen en función de sus respectivos cargos que han quedado expresados y en el ejercicio de las facultades que les han sido legalmente conferidas y reconociéndose plena capacidad para formalizar el presente convenio,

MANIFIESTAN:

Que dentro de las competencias propias de cada institución, el Departamento de Sanidad, la Diputación Foral de Álava a través de su, entonces, Departamento de Bienestar Social y Osakidetza-Servicio vasco de salud suscribieron, el 16 de noviembre de 1998, un Acuerdo Marco de colaboración para la cobertura de necesidades socio-sanitarias en el Territorio Histórico de Álava, cuya cláusula tercera recoge que dicho Acuerdo Marco se concretará en convenios específicos y particulares u otro tipo de acuerdos y protocolos que, naturalmente, recogerán los objetivos a conseguir, recursos para ello y órganos responsables de su aplicación.

Asimismo, con fecha 30 de enero de 2003 se suscribió entre el Gobierno Vasco, las Diputaciones Forales de Álava, Bizkaia, Gipuzkoa y la Asociación de Municipios Vascos Eudel, un convenio de colaboración para el desarrollo de la Atención Socio-sanitaria en la Comunidad Autónoma del País Vasco. De conformidad con lo que determina la estipulación décima:

«En todos los dispositivos definidos como socio-sanitarios, independientemente de su procedencia, el coste total de la prestación debe dividirse en dos módulos que representen respectivamente a los servicios sanitarios y sociales prestados.

El coste de ambos módulos debe encaminarse a ser estandarizado y directamente relacionado con el grado de complejidad de la prestación recibida abandonando las fórmulas genéricas de coste medio por cama o precio medio de estancia».

Horrekin guztiarekin bat, beharrezkoa da lankidetzako tresnez hornitzea Arabako Lurralde Historikoko Egoitza-Unitate soziosanitarioetan ingresatuta dauden pertsonei erantzun integratua emateko, era horretan Foru Aldundiak kudeatu edo kontzertatutako unitateetan prestazio mediku-sanitarioen estaldurarako Gizarte-Politika eta Gizarte-Zerbitzuetako Sailari egindako gastuak konpentsatuta.

Hori guztia dela eta, bi alderdiek aurrean dugun Lankidetzako Hitzarmena sinatzea hitzartu dute eta Hitzarmen hori ondoko eran arautuko da

HIZPAKETAK:

Lehenengoa.– Hitzarmenaren helburua.

Hitzarmen honen helburua da, batetik, Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politika eta Gizarte Zerbitzuetako Sailaren, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailaren eta Osakidetza- Erakunde Publikoaren arteko koordinazioa ezartzea, Egoitza-Unitate Soziosanitarioetan zerbitzu soziosanitarioak eskaintzeko (zerbitzu horiek, edozein baldintza edo titulu dela eta, Arabako Foru Aldundiak kudeatzen, tutelatzen edo kontzertatzen ditu). Bigarren helburua, dagokion finantzazio-eredua ezartzea da.

Bigarrena.– Arreta sanitarioa.

1.– Egoitza-Unitate soziosanitarioak ondokorako bereziki diseinatutako unitateak dira: mendekotasun egoeran diren pertsonei beharrezko prestazioak eskaintzeko, gizarte eta osasun mailako zainketako behar bizi-ak dituztenei, ospitaleratze sanitarioa eta gizarte-egoitza arretaren arteko trantsizio epean. Halaber, egoitza-unitate horiek ospitaleetan ingresatutako pazienteen aldi baterako kokapenari irtenbidea eman ahal izango diote, alta klinikoaren irizpideak beteta, alta hori ezin denean exekutatu era desberdinetako arrazoi soziosanitarioengatik; era berean, egoitza-unitate horiek deribatzeko plazak edukitzeko aukera izango dute, Gizarte Politika eta Gizarte Zerbitzuen Sailaren bidez eta era urgentean, gizarte-zerbitzuen sareko zentroetako mantentze zaila duten kasuak deribatzeko, gizarte-osasun arreta bizia behar izan eta ospitaleratzeko aukerarik ez dagoenean.

Bereziki, unitate horietako bezeroak ondoko hauek dira:

– Ospitaleko alta eta bizi itxaropen laburra dutenak, baina zainketa aringarrietan ingresatu beharrik ez dutenak eta ezin direnak euren bizilekura itzuli, eta horientzat egoitza-kokapena egokitzat jotzen ez denean.

– Ospitaleratzearen ondorioz, susperraldian direnak, desgaitasun fisiko edota psikiko larria pairatzen dutenak, eta zainketa asistentzial etengabeak eta sanitarioak behar dituztenak.

De acuerdo con todo ello, se considera necesario dotarse de instrumentos de colaboración al objeto de dar respuesta integrada a las personas que se encuentren ingresadas en las unidades residenciales socio-sanitarias del Territorio Histórico de Álava, compensando al Departamento de Política Social y Servicios Sociales del gasto que realice en concepto de cobertura de la prestación médico-sanitaria en dichas unidades gestionadas o concertadas por la Diputación Foral.

En virtud de lo cual, las citadas partes convienen en firmar el presente convenio de colaboración, que se regirá por las siguientes

ESTIPULACIONES:

Primera.– Objeto del convenio.

Es objeto del presente convenio establecer la coordinación entre el Departamento de Política Social Y Servicios Sociales de la Diputación Foral de Álava, el Departamento de Sanidad del Gobierno Vasco y el Ente Público Osakidetza para la prestación de los servicios socio-sanitarios en las unidades residenciales socio-sanitarias que bajo cualquier condición o título se hallan gestionadas, tuteladas o concertadas por la Diputación Foral de Álava, y establecer el correspondiente modelo de financiación.

Segunda.– Atención sanitaria.

1.– Las unidades residenciales socio-sanitarias son unidades específicamente diseñadas para proporcionar las prestaciones necesarias a personas en situación de dependencia que presentan necesidades intensas de cuidados sociales y sanitarios, en un espacio de transición entre la hospitalización sanitaria y la atención residencial social. Igualmente podrán resolver la ubicación temporal de pacientes ingresados en centros hospitalarios que reuniendo criterios de alta clínica, dicha alta no puede ser ejecutada por motivos socio-sanitarios de diversa índole, así como para disponer de plazas donde derivar, por parte del Departamento de Política Social y Servicios Sociales y de forma urgente, casos de difícil mantenimiento en centros de la red de servicios sociales por confluir en ellos necesidades de atención socio-sanitaria intensa y que, sin embargo, no son susceptibles de hospitalización.

Son, de forma específica, clientes de estas unidades:

– Personas con alta hospitalaria y expectativa de vida breve que, sin embargo, no precisan ingreso en cuidados paliativos y que no pueden retornar a su domicilio, para las cuales no se considera adecuada una ubicación residencial.

– Personas en periodo de convalecencia tras ingreso hospitalario, sufriendo una condición de grave discapacidad física y/o psíquica, necesitando de cuidados asistenciales continuos y sanitarios frecuentes.

– Dementzia-prozesuek harrapatutako nagusiak: agitazio-fasean, jarrera-nahasteak, agresibitatea, etab., egoitza batean edo bere bizilekuan ohiko jarduera erabat eraldatu dezaketenak.

– Gaixotasun infekzioso baten ondorioz edo mikroorganismo multierresistenteek kolonizatuta izateagatik, egoitza batean ezin eman daitezkeen kontrol edo isolamendu neurri bereziak behar dituztenak eta ospitaleetako unitate espezifikoetan ingresatzeko beharrik ez dutenak.

– Pazienteak, ospitaleko alta direnean, susperraldirik behar ez dutenak baina bizilekura ezin itzul daitezkeenak batez ere gizarte mailako arazoengatik.

– Gizarte eta osasun behar biziak dituzten bestelako egoerak, baina ospitaleratzerik behar ez dutenak.

2.– Unitate horietako oheak ez dira behin betikotzat hartzen; beraz, etengabeko 12 hilabeteko gehienezko epe indibiduala behin iragandakoan, eta seigarren Hizpaketaren 3. atalaren arabera, Balorazio eta Orientazio Soziosanitarioaren Batzordeak formulatutakoari jarraiki, erabiltzaileek horiek utzi egin beharko dituzte, eta baliabide egokienean kokatu beharko dira, osasun edo gizarte mailakoan, bere beharrak behar bezala artatzeko. Laurogeita hamar (90) egunetan ezartzen da Gizarte-osasun Unitateak xede duen batez besteko egonaldia.

3.– Osasun Sailak Arabako Foru Aldundia konpentsatuko du unitate horietako arreta sanitarioan egindako gastuagatik, modulu sanitarioaren eta laugarren hizpaketan ezarritako baldintzen arabera.

Hirugarrena.– Gizarte Zerbitzuak.

1.– Arabako Foru Aldundiak, Gizarte Politika eta Gizarte Zerbitzuetako Sailaren bidez, alderdien artean adostutako zentroek Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko asistentzia-sareko Zentroetako pertsonalarekin lankidetzan jarduteko ardura hartuko du, Osasun Sailaren Arabako Lurralde Zuzendaritzaren jarraibide teknikoen arabera, asistentzia sanitarioari dagokionez.

2.– Ondorio guztietarako, Osasun-Sailarekin egiten den hitzarmen soziosanitario horretan bildutako materia guztien gaineko interlokuzioa, berariaz Arabako Foru Aldundiari dagokio, Gizarte Politika eta Gizarte Zerbitzuen Sailaren bidez.

Laugarrena.– Baldintza ekonomikoak.

1.– Plaza bakoitzaren kostuaren finantzazioa horrela egingo da: plaza/kostuaren % 50 duen modulu sanitarioa eta plaza/kostuaren % 50 duen gizarte-modulua kontuan hartuta.

Plazaren kostu osoa egunean 105 eurokoa izango da 2009. ekitaldian.

– Personas mayores afectas de procesos demenciales en fase de agitación, con trastornos del comportamiento, agresividad, etc., que podrían distorsionar gravemente la actividad normal en un centro residencial o en su domicilio.

– Personas que a consecuencia de una enfermedad infecciosa o que por estar colonizados por microorganismos multi-resistentes precisen de medidas especiales de control o aislamiento que no puedan prestarse en un medio residencial y que no requieran ingreso en unidades específicas hospitalarias.

– Pacientes que al alta hospitalaria no requieren convalecencia pero no pueden regresar al domicilio por problemática básicamente social.

– Otras situaciones con requerimientos sociales y sanitarios intensos y que, sin embargo, no precisan hospitalización.

2.– Las camas de estas unidades no tienen consideración de plaza definitiva, por lo que una vez transcurrido el plazo máximo individual de doce (12) meses ininterrumpidos y a tenor de la propuesta que, en cumplimiento de la Estipulación sexta apartado 3, formule al respecto la Comisión de Valoración y Orientación Socio-sanitaria, las personas usuarias deberán abandonar las mismas, debiéndoseles ubicar en el recurso más adecuado, sea sanitario o social, para la correcta atención de sus necesidades. Se fija en noventa (90) días la estancia media objetivo de la Unidad Socio-sanitaria.

3.– El Departamento de Sanidad compensará a la Diputación Foral de Álava por el gasto que ésta realice en la atención sanitaria en estas unidades, según el módulo sanitario y en las condiciones que se fijan en la estipulación cuarta.

Tercera.– Servicios sociales.

1.– La Diputación Foral de Álava, a través del Departamento de Política Social y Servicios Sociales velará para que los centros que se pacten entre las partes colaboren con el personal de los Centros de la red asistencial de Osakidetza-Servicio vasco de salud, de acuerdo con las instrucciones técnicas de la Dirección Territorial de Álava del Departamento de Sanidad, en lo que a asistencia sanitaria se refiere.

2.– A todos los efectos, la interlocución de las materias incluidas en este convenio socio-sanitario ante el Departamento de Sanidad corresponderá en exclusiva a la Diputación Foral de Álava, a través del Departamento de Política Social y Servicios Sociales.

Cuarta.– Condiciones económicas.

1.– La financiación del coste de cada plaza se basará en considerar la existencia de un módulo sanitario que alcanza el 50% del coste/plaza y un módulo social con el 50% del coste/plaza.

El coste total de la plaza será de 105 euros diarios durante el ejercicio 2009.

2.– Modulu sanitarioaren zenbatekoa Osasun Sailak finantzatuko du. Finantzazio hori, alderdiek adostutako unitateetan egindako benetako egonaldi bakoitzeko egingo da, hilabetero eta behar den moduan diligentziatutako zerrenda aurretiaz aurkeztuta.

2009. urtean modulu horren zenbatekoa 52,50 eurokoa izango da eta urtero berrikusiko da.

3.– Gizarte-moduluaren zenbatekoa, hau da, plazaren kostu osoa ken modulu sanitarioa, 52,50 eurokoa da 2009. urterako, eta zenbateko hori Gizarte Politika eta Gizarte Zerbitzuetako Sailak eta erabiltzaileek finantzatuko dute. Erabiltzaileak dagokien zatia zentroan emandako 30. egunetik aurrera ordaintzen hasiko dira.

4.– Erabiltzaileek aldi baterako zentroa uzten badute eta beharrezkoa balitz ohea erreserbatzea (ospitaleratzea edo bestelako arrazoiengatik), Osasun Sailak modulu-sanitarioan aurreikusitako tarifaren % 75 ordainduko du gehienez ere ondoz ondoko 30 egun naturaletan. Epe hori gainditua, zentroak pertsona egoiliarraren behin betiko alta luzatuko du inolako fakturazio osagarririk gabe une horretatik aurrera. Erreserbatutako oheak hutsik geratuko dira eta beste egoiliarrek ezingo dituzte okupatu harik eta erreserba horren titularraren behin betiko alta eman arte.

5.– Okupatu gabeko eta erreserbatu gabeko oheei dagokienez, hots, inolako pertsona onuradunari esleituta izan ez diren plazak, epe horretan Osasun Sailak modulu sanitarioan aurreikusitako tarifaren % 50 ordainduko du plaza hori okupatu arte.

6.– Plaza soziosanitarioa okupatuko duen bezeroari plaza horren ezaugarrien berri emango zaio, besteak beste: egonaldiaren epealdia, ordaindu beharreko kostua eta interesatzen zaizkion bestelakoak. Halaber, pertsona interesdunak (edo legalki pertsona arduradunak ezintasun mentala denean) plaza horretan sartzeko baimena sinatuko du. Baimen horretan, aurretiaz aipatutako alderdi guztiak bilduko dira. Funtzio hori Sistema Sanitarioari dagokio ospitale batetik badator, edo Gizarte Zerbitzuei etxetik edo egoitza-gunetik badator.

Bosgarrena.– Zerbitzuetarako sarbidea.

1.– Egoitza-Unitate Soziosanitarioetako erabiltzaileak ondokoetatik etorriko dira:

– Ospitaleetatik: Osasun Sailak zehazten duen arduradunaren eskaeraren bidez, dagokion ospitalearen aurretiazko proposamenarekin.

– Egoitzetatik: Gizarte Politika eta Gizarte Zerbitzuetako arduradunaren eskaeraren bidez, dagokion egoitza-zentroaren aurretiazko proposamenarekin.

2.– El importe del módulo sanitario será financiado por el Departamento de Sanidad. Dicha financiación se realizará por estancia real producida en las unidades que así se pacten por las partes, con periodicidad mensual y previa presentación de listado correctamente diligenciado.

La cuantía de dicho módulo para el año 2009 se cuantifica en 52,50 euros y será revisada anualmente.

3.– El importe del módulo social, esto es, el coste total de la plaza menos el módulo sanitario, es de 52,50 euros para el año 2009 y será financiado por el Departamento de Política Social y Servicios Sociales y la persona usuaria. Éstas (las personas usuarias) comenzarán a abonar su parte correspondiente a partir del día 30 de estancia en el centro.

4.– En caso de que las personas usuarias abandonen temporalmente la unidad y fuera necesaria la reserva de la cama (por ingreso hospitalario u otros motivos), se abonará, por parte del Departamento de Sanidad, el 75% de la tarifa prevista en el módulo sanitario durante un periodo máximo de 30 días naturales consecutivos. Superado dicho periodo se procederá por parte del centro al alta definitiva de la persona residente sin facturación adicional alguna a partir de ese momento. Las camas reservadas permanecerán vacías y no podrán ser ocupadas por otra persona residente hasta que se haya producido el alta definitiva del titular de dicha reserva.

5.– En el caso de plazas no ocupadas y no reservadas, es decir plazas no asignadas a ninguna persona beneficiaria, se abonará, por parte del Departamento de Sanidad, el 50% de la tarifa prevista en el módulo sanitario durante el periodo hasta que se ocupe la plaza.

6.– El cliente que vaya a ocupar una plaza sociosanitaria será debidamente informado de las características de dicha plaza, la temporalidad de la estancia, el coste que deberá abonar y cuantos aspectos en esta materia sean de su interés. Igualmente, la persona interesada (o la persona legalmente responsable en caso de incapacidad mental) firmará la autorización de ingreso en dicha plaza, donde se recogerán todos los aspectos anteriormente mencionados. La realización de esta función corresponderá al Sistema Sanitario, si proviene de un hospital, o a los Servicios Sociales, si proviene de su domicilio o del medio residencial.

Quinta.– Acceso a los Servicios.

1.– Las personas usuarias de las unidades residenciales socio-sanitarias procederán de:

– Hospitales: mediante solicitud de la persona responsable que el Departamento de Sanidad determine, previa propuesta del hospital correspondiente.

– Residencias: mediante solicitud de la persona responsable que el Departamento de Política Social y Servicios Sociales determine, previa propuesta del centro residencial correspondiente.

– Bizilekuetatik: Gizarte Politika eta Gizarte Zerbitzuetako arduradunaren eskaeraren bidez, Lehen Mailako Arretako Unitateen aurretiazko proposamenarekin.

Eskaera hauek guztiak Balorazio eta Orientazio Soziosanitarioaren Batzordera bidaliko dira aztertzeko eta ebazteko.

2.– Unitate horren izaera gordetzeko, inoiz ezingo da okupatutako plazen % 25eko proportzioa gainditu; horrela bada, Balorazio eta Orientazio Soziosanitarioaren Batzordeak «konpondu gabeko gizarte-arazotzat» joko du eta orduan, Arabako Foru Aldundiari egokituko zaio erabiltzailea gizarte-errekurtso egokian berkokatzea.

Seigarrena.– Batzordeak.

1.– Arreta Soziosanitarioaren Lurraldeko Kontseilua izango da lankidetzako hitzarmen honen garapen egokia bermatzeaz arduratuko dena.

Eremu horretan, bere funtzioak ondokoak izango dira:

a) Hitzarmena interpretatzea eta betetzen dela zaintzea.

b) Funtzionamenduaren jarraipena eta ebaluazioa egitea eta egoki iritzitako aldaketak proposatzea.

c) Hitzarmenean bertan existitzen diren unitateetan, unitate berriak edo plaza berriak gehitzea, horretarako arduradunei akordio horren baiespena proposatuta.

2.– Funtzio horiek dagokion Batzorde Teknikoari eskuordetu dakizkioke.

3.– Balorazio eta Orientazio Soziosanitarioaren Batzordea izango da ingresuak zehazteaz, alten jarraipenaz eta gizarte-osasun unitateetarako aldaketez arduratuko dena.

Zazpigarrena.– Desegite-klausula.

Hitzarmen hau desegiteko klausulak ondokoak izango dira:

– Indarraldia amaitzea.

– Sinatzaileek hitzarmena desegiteko egindako akordioa.

– Alderdietako baten ukapena, bi hilabeteko aurreabisuarekin.

Zortzigarrena.– Hitzarmenaren indarraldia eta luzapena.

Hemen sinatzen duten Erakundeen arteko Hitzarmenak ez du eraginik izango harik eta Erakunde horiek beste organo batzuen berrespena behar badute eta organoek berrespen hori eman arte, eta edozein modutan ere, 2009ko abenduaren 31 arte.

– Domicilios: mediante solicitud de la persona responsable que el Departamento de Política Social y Servicios Sociales determine, previa propuesta de las Unidades de Atención Primaria.

Todas estas solicitudes serán remitidas a la Comisión de Valoración y Orientación Socio-sanitaria para proceder a su estudio y resolución.

2.– Para preservar el carácter de esta unidad, en ningún momento se sobrepasará la proporción del 25% de plazas ocupadas por el motivo calificado como «problema social no resuelto» por parte de la Comisión de Valoración y Orientación Socio-sanitaria, debiendo, a estos efectos, proceder la Diputación Foral de Álava a la reubicación de la persona usuaria en el recurso social adecuado.

Sexta.– Comisiones.

1.– Será el Consejo Territorial de Atención Sociosanitaria el responsable de garantizar una adecuada coordinación en el desarrollo de este convenio de colaboración.

Sus funciones en este campo serán:

a) Interpretar y vigilar el cumplimiento del convenio.

b) Realizar el seguimiento y evaluación de su funcionamiento y formular las propuestas de modificación que se consideren oportunas.

c) Acordar la incorporación al convenio de nuevas unidades o de nuevas plazas en las unidades existentes, proponiendo a los responsables de ambas partes la ratificación de tal acuerdo.

2.– Dichas funciones podrán ser delegadas en la Comisión Técnica correspondiente.

3.– La Comisión de Valoración y Orientación Sociosanitaria será la encargada de determinar los ingresos, seguimiento altas y traslados de la unidad socio-sanitaria.

Séptima.– Cláusula de rescisión.

Serán causas de extinción del presente convenio las siguientes:

– El cumplimiento del plazo de vigencia.

– El mutuo acuerdo entre las partes firmantes.

– La renuncia de una de las partes, con un preaviso de dos meses.

Octava.– Vigencia y prórroga del convenio.

La eficacia del presente convenio, en relación con las Instituciones aquí firmantes para las que resulte preceptivo su ratificación por otros órganos, queda condicionada a su ratificación por los mismos y, en todo caso, hasta el 31 de diciembre de 2009.

Urtero, aurrekontuan kreditu nahiko eta egokia egonez gero, hitzarmena urte naturaletan luzatuko da, alderdietako batek berariaz salatu ezean (bi hilabete lehenago aurkeztu behar da, gutxienez).

Eta aurretiaz azaldutako guztiarekin ados direla adieraziz, alderdiek Hitzarmen hau sinatzen dute, hiru kopiatan, hasieran adierazitako lekuan eta datan, bertan ezarritako hizpaketen arabera.

Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko sailburua,
GABRIEL MARÍA INCLÁN IRIBAR.

Arabako diputatu nagusia,
XABIER AGUIRRE LÓPEZ.

Osakidetzako zuzendari nagusia,
GLORIA QUESADA MENÉNDEZ.

Condicionado a la existencia de crédito adecuado y suficiente en los correspondientes presupuestos se prorrogará por años naturales, salvo denuncia expresa de alguna de las partes intervinientes, presentada con al menos dos meses de antelación.

Y en prueba de conformidad con todo lo anteriormente expuesto, firman el presente convenio por triplicado ejemplar, en el lugar y fecha señalados al comienzo y conforme a las estipulaciones que en el mismo se han establecido.

El Consejero de Sanidad,
GABRIEL MARÍA INCLÁN IRIBAR.

El Diputado General de Álava,
XABIER AGUIRRE LÓPEZ.

La Directora General de Osakidetza-Servicio vasco de salud,
GLORIA QUESADA MENÉNDEZ.

II. ERANSKINA JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZAKO ETA LEGEBILTZARREKIKO HARREMANETARAKO ZUZENDARIAREN APIRILAREN 14KO 11/2009 EBAZPENARENA

Hitzarmena, Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren eta Universidad del País Vasco/ Euskal Herriko Unibertsitatearen artekoa, etxebizitza eta gizarte gaietako politiketan herritarren partaidetzari loturiko ekintzak garatzeko dena.

BILDUTAKOAK:

Alde batetik, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburu Javier Madrazo Lavín jauna.

Eta bestetik, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko errektore Iñaki Goirizelaia Ordorika jauna.

PARTE HARTZEN DUTE:

Lehenengoak, Eusko Jaurlaritza ordezkatzeko legezko gaitasuna erabiliz,

Bigarrenak, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatearen errektore izanik hura ordezkatzeko duen legezko ahalmena erabiliz.

Bi alderdiek hitzarmen hau formalizatzeko beharrezko gaitasun juridikoa aitortzen diote elkarri eta, horretan aritzeko eman zaien ordezkaritza elkarri onartuta, honako hau

ADIERAZI DUTE:

I.– Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak, Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritzaren bitartez, eta azaroaren 15eko 373/2005 Dekretuarekin bat etorriz, honako eginkizun hauek gauzatzen ditu: partaidetza soziala eta herritarren partaidetza sustatzea, politika publikoetan partaidetza soziala eta demokratikoa gauzatzeko mekanismoak indartzea, herritarren sentsibilizazio eta kontzientziazio soziala sustatzea politika horietan parte hartzeko, herritarren partaidetzarako mekanismoak eta baliabideak proposatzea eta ezartzea eta herritarrek eztabaidatzeko eta parte hartzeko metodoak proposatu, arautu eta ezartzea.

II.– Herritarren partaidetzaren eta komunitate-garapenaren eremuan ikertzea, aztertzea, sozializatzea, ezagutzaren sistematizazioa eta prestakuntza-ekintza espezializatuak abiaraztea ezinbesteko zeregina da partaidetza sozialerako eta herritarren partaidetzarako mekanismoak eta baliabideak egoki garatu ahal izateko.

III.– Unibertsitatea sektore eta diziplina anitzeko prestakuntzako eta ikerketako erakundea da, irakaskuntzako, ikerketako eta garapen zientifiko eta teknologikorako jarduerak garatzen dituena.

ANEXO II A LA RESOLUCIÓN 11/2009, DE 14 DE ABRIL, DEL DIRECTOR DE LA SECRETARÍA DEL GOBIERNO Y DE RELACIONES CON EL PARLAMENTO

Convenio con la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea para el desarrollo de acciones de participación ciudadana en políticas de vivienda y asuntos sociales

REUNIDOS:

De una parte, D. Javier Madrazo Lavín, Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales del Gobierno Vasco,

Y de otra, D. Iñaki Goirizelaia Ordorika, Rector de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea.

INTERVIENEN:

El primero, en ejercicio de la capacidad legal de representación del Gobierno Vasco.

El segundo, en ejercicio de la capacidad legal de representación en su condición de Rector de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea.

Ambas partes se reconocen la capacidad jurídica necesaria para la formalización del presente convenio y, aceptando recíprocamente las representaciones en cuya virtud actúan, de común acuerdo,

MANIFIESTAN:

I.– Que el Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales, a través de la Dirección de Participación Ciudadana y de conformidad con el Decreto 373/2005, de 15 de noviembre, ejerce funciones de promoción de la participación social y ciudadana, impulso de mecanismos de participación social y democrática en las políticas públicas, promoción de la sensibilización y concienciación social de la ciudadanía para participar en esas políticas, propuesta y establecimiento de mecanismos e instrumentos de participación ciudadana, y propuesta, regulación e implantación de métodos y fórmulas de deliberación y participación ciudadana.

II.– Que el estudio, análisis, la socialización, la sistematización del conocimiento y la implementación de planes formativos especializados en el ámbito de la participación ciudadana y desarrollo comunitario es una tarea imprescindible para garantizar un buen desarrollo de los diferentes mecanismos e instrumentos de participación social y ciudadana.

III.– Que la Universidad es una institución de formación e investigación de carácter multisectorial y pluridisciplinario que desarrolla actividades de enseñanza, investigación y desarrollo científico y tecnológico.

IV.– Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateak ospe handiko ibilbidea egin du herritarren partaidetzaren eta komunitate-garapenaren inguruko gaietan.

V.– Bi alderdiek interesa dutela herritarren partaidetzaren alorrean sozializazio ekintzak garatzeko eta sareak sortu, prestatu eta hedatzeko, demokrazia parte-hartzailearen aurrerapenerako prozesuak bultzatzeko urrats eraginkor gisa.

VI.– Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatearekin lankidetzan jardutea erabaki du ekintza horiek garatzeko.

Horretarako, bi alderdiek honako Lankidetza Hitzarmen hau gauzatzen dute, ondoren adierazten diren klausulen arabera

KLAUSULAK:

Lehenengoa.– Helburua.

Hitzarmen honen helburua Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren eta Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatearen (aurrerantzean, UPV/EHU) arteko lankidetza gauzatzea da, etxebizitza eta gizarte gaietako politiketan herritarren partaidetzako esperientziak garatzeko eta haien jarraipena finantzatzeko. Jardueren programaren barruan daude ezagutzaren sistematizazioa eta hedapena, herritarren partaidetzako sareen dinamizazioa, herritarren partaidetza prozesuetarako prestakuntza- eta laguntza-eskabideen hasierako kudeaketa, prestakuntza herritarren partaidetzan, eta herritarren partaidetzako web atari baten kudeaketa eta mantentzea.

Bigarrena.– Urteko proposamena.

UPV/EHUk jardueren urteko proposamena aurkeztuko du, baita gauzatzearen balorazio ekonomikoa ere. Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritzak onespena emango dio proposamenari, beti ere hitzarmen honen helburuekin bat badator.

Hirugarrena.– Finantziazioa.

Eusko Jaurlaritzak, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Herritarren Partaidetzarako Zuzendaritzaren bitartez, Jaurlaritzak finantzatutako eta hitzarmen honetako eranskinean biltzen diren kontzeptuen kostuaren % 60 (82.500 euro) ordainduko du, ekitaldi ekonomiko bakoitzean garatu behar den proposamena eta urteko aurrekontua zehaztutakoan. Lehen ordainketako egindako gastuak justifikatzean ordainduko da gainerako % 40 (55.000 euro). Ordainketa horiek UPV/EHUren aurrekontuen kontura banku-transferentzia eginez gauzatuko dira eta UPV/EHU arduratuko da Administrazio Kudeaketarako Atalera dagokion intsuldaketa egiteaz.

IV.– Que la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea cuenta con una trayectoria reconocida en la investigación y la formación en materia de participación ciudadana y desarrollo comunitario.

V.– Que ambas partes tienen interés en el desarrollo de las actividades de socialización y difusión, formación y creación de redes en el ámbito de la participación ciudadana como un paso efectivo en el impulso de procesos que faciliten el progreso de la democracia participativa.

VI.– Que el Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales del Gobierno Vasco ha resuelto colaborar con la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea en el desarrollo de estas actividades.

A dicho fin, ambas partes formalizan el presente convenio de colaboración a tenor de las siguientes

CLÁUSULAS:

Primera.– Objeto.

El presente convenio tiene por objeto la colaboración del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales del Gobierno Vasco con la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea (en adelante, UPV/EHU), para financiar el desarrollo y seguimiento de experiencias de participación ciudadana en políticas de vivienda y asuntos sociales. El programa de actividades incluye, la sistematización y difusión del conocimiento, la dinamización de redes de participación ciudadana, la gestión inicial de demandas de formación y acompañamiento en procesos de participación ciudadana, la formación en participación ciudadana, y la gestión y mantenimiento de un portal web de participación ciudadana.

Segunda.– Propuesta anual.

La UPV/EHU presentará una propuesta anual de actividades, que deberá ir acompañada de la valoración económica de su ejecución. La Dirección de Participación Ciudadana dará su aprobación a la mencionada propuesta en virtud de si la misma se ajusta a la finalidad del presente convenio.

Tercera.– Financiación.

El Gobierno Vasco, a través de la Dirección de Participación Ciudadana del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales, abonará el 60% (82.500 euros) del coste de los conceptos financiados por el gobierno que se incluyen en el anexo al presente convenio, una vez concretada la propuesta a desarrollar en cada ejercicio económico, así como el presupuesto anual. El 40% (55.000 euros) restante se abonará tras la justificación de los gastos realizados del primer pago. Tales abonos se efectuarán mediante transferencia bancaria a la cuenta de presupuestos de la UPV/EHU, que se encargará del correspondiente traspaso a la Unidad de Gestión Administrativa (UGA).

Laugarrena.– Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legea, otsailaren 18koa.

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeari jarraiki, hitzarmen honetan jasotako jardueren plangintzak, garapenak eta ondorengo ebaluazioak generoaren ikuspegia bildu beharko dute emakumeen eta gizonen egoera, baldintza, itxaropen eta premia desberdinak kontuan izan daitezen. Halaber, Lankidetza Hitzarmen honetako jarduerak direla-eta egiten diren memoria, ikastaroko material eta gainerako idazkietan hizkera ez-sexista erabili beharko da.

Bosgarrena.– Justifikazioa eta urteko memoria.

Eremu horren birpartzelazioaren ondorioz, Tolosako Udalak hainbat lur-zati urbanizatu eskuratuko ditu, etxebizitza babestua sustatzera bideratuta.

Behin betiko onartu denez Birpartzelatze Proiektua, bi aldeen arabera, behar adina aldiz hitz egin beharko dute, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak eremu horretako etxebizitza babestuen sustapenean izango duen partaidetza zehazteko, eta bereziki, Sailak eskuratzeko egokienak diren lur-zati urbanistikoak identifikatzeko, eta horien prezioa eta ondare-eragiketarako eta horren sustapenerako garrantzitsuak diren beste ezaugarri guztiak zehazteko.

– Olarrain Sektorea:

Jardun mistoa da, bizitegi-erabilerakoa eta hirugarren sektoreko erabilerakoa.

Eremu horren kudeaketa urbanistikoaren barruan, Tolosako Udalari dagokio -legez- hirigintza-jarduketak eragindako gainbalioetan Komunitateak duen partaidetza.

Euskal Autonomia Erkidegoko lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 27. artikuluan xedatutakoari jarraiki, Tolosako Udalak interesa agertu du partaidetza hori gauzatzeko -ahal baldin bada- babes ofizialeko etxebizitzak sustatzera bideratutako lurzatian, alde batera utzi gabe kalte-ordain osagarriak eta eremu horri dagozkion eraikigarritasun-eskubideak handiagoak izan daitezkeela.

Eremu horretan sartutako higiezin guzti-guztiak hirigintza-kudeaketa egiteke duten jabetza partikularrak dira.

Behin betiko onartu denez Birpartzelatze Proiektua, eta Tolosako Udalak etxebizitza babestua sustatzeko lurzati urbanistikoren bat eskuratu badu, bi aldeen arabera, behar adina aldiz hitz egin beharko dute, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak eremu horretako etxebizitza babestuen sustapenean izango duen partaidetza zehaz-

– Área Laskorain:

Es una actuación en suelo urbano no consolidado en la que se posibilita la promoción de un total de 1.066 viviendas, de las que aproximadamente más del 50% se califican como viviendas de protección oficial en sus distintos regímenes jurídicos y económicos.

Al Ayuntamiento de Tolosa en el curso de la gestión urbanística del ámbito le corresponderá por atribución legal la participación de la comunidad en las plusvalías derivadas de la actuación urbanística.

Asimismo, el Ayuntamiento de Tolosa por compra y por acuerdos alcanzados por propietarios, dispone aproximadamente del 50% de los inmuebles incluidos en dicho ámbito, correspondiendo el resto a distintas propiedades particulares pendientes de gestión urbanística.

Como consecuencia de la reparcelación de este ámbito, el Ayuntamiento de Tolosa obtendrá distintas parcelas urbanizadas destinadas a la promoción de vivienda protegida.

Ambas partes entienden que, aprobado definitivamente el Proyecto de Reparcelación, se deben mantener las conversaciones oportunas encaminadas a determinar la participación del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales en la promoción de vivienda protegida en este ámbito, y más concretamente en identificar las parcelas urbanísticas más adecuadas para que sean adquiridas por el referido Departamento, su precio y todas aquellas circunstancias relevantes para la operación patrimonial y su promoción.

– Sector Olarrain:

Es una actuación mixta de usos residenciales y terciarios.

Al Ayuntamiento de Tolosa en el curso de la gestión urbanística del ámbito le corresponderá por atribución legal la participación de la comunidad en las plusvalías derivadas de la actuación urbanística.

El Ayuntamiento de Tolosa, de acuerdo con lo señalado en el artículo 27 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de suelo y urbanismo de la Comunidad Autónoma del País Vasco, ha mostrado su interés por materializar esa participación, en el supuesto de que sea posible, en la parcela destinada a la promoción de vivienda de protección oficial, sin perjuicio de que le puedan corresponder además mayores derechos edificatorios en el ámbito o indemnizaciones complementarias.

La totalidad de los inmuebles incluidos en dicho ámbito corresponden a distintas propiedades particulares pendientes de gestión urbanística.

Ambas partes entienden que, aprobado definitivamente el Proyecto de Reparcelación, y en el supuesto de que el Ayuntamiento de Tolosa hubiese adquirido alguna parcela urbanística destinada a la promoción de vivienda protegida, se deben mantener las conversaciones oportunas encaminadas a determinar la participación

teko, eta bereziki, Sailak eskuratzeko egokiena den lurzati urbanistikoa identifikatzeko, eta horren prezioa eta ondare-eragiketarako eta horren sustapenerako garrantzitsuak diren beste ezaugarri guztiak zehazteko.

– Ezkerraldea Herrigune Historiko RC2 Area:

Herrigune Historikoaren Monumentu Multzoko hiri-lurzoru finkatugabean eginiko jarduna da. Bertan, etxebizitzak sustatzea ahalbidetuko da.

Proposatutako antolamenduaren helburuen bidez, honako hauek lortu nahi dira: Oria ibaiaren urbazterreko pasealekua berreskuratzea; Herrigune Historikoa oinezkoentzako bihurtzea, RC3 Areako aparkalekuekiko ibilgailuentzako sestrapeko lotura bat burutuz; Andre Mariaren elizatik Arrameleko zubira bitartean ubideratzeko horma bat eraikitzea.

Bi herri-administrazioen iritziz, egikaritze horretarako behar diren baliabide guztiak erabili behar direla, ikusirik hirigintzaren ikuspegitik nolako konplexutasuna duen eremu hori garatzeak.

Laugarrena.– Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak, etxebizitzaren arloan dituen eskumenak baliatuz, babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeko lurzorua behar du etxebizitzen premia egiaztatua duten udalerrietan (eta, horien artean, Tolosan), errenta-ahalmen txikia izanik etxebizitzaren merkatu librera jotzerik ez duten familientzat.

Ildo beretik, bi herri-administrazioek egoki iritzi diote lankidetza-politika egonkorra ezartzeari, etxebizitza babestua sustatzeko programa baten bidez, eta programa horren barruan epe motz, ertain eta luzerako jardunak bilduko dira.

Bi herri-administrazioek komenigarritzat jo dute Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila izatea lurzoru horietan aurreikusitako etxebizitza babestuen sustapen berriei ekiteko arduraduna. Horretarako, aurrerago, dagozkion lankidetza-hitzarmenak idatzi eta sinatuko dira, higiezinen transmisioa gauzatuko duen titulua, besteak beste, zehaztuta. Hitzarmen horiek aurreraxeago azalduko ditugun klausulen araberakoak izango dira.

Bosgarrena.– 2/2007 Legegintzako Dekretua, azaroaren 6koa, Euskadiko Ondareari buruzko Legearen testu bategina onartzeko denaren 43. artikuluak agintzen duenez, ondare higiezinak eskuratzeko jardunbidea lehia-prozedura da. Baina artikulu bereko 1. zenbakian, zuzeneko kontratazioa ere ahalbidetzen da, aldez aurretik Jaurlaritzaren Kontseiluak baimena emanda, erosteko premia eta merkatu-baldintzak nabarmenak direnean -kasu honetan bezalaxe-.

2/2007 Legegintzako Dekretua, azaroaren 6koa, Euskadiko Ondareari buruzko Legearen testu bategina

del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales en la promoción de vivienda protegida en este ámbito, y más concretamente en identificar la parcela urbanística más adecuada para que sea adquirida por el referido Departamento, su precio y todas aquellas circunstancias relevantes para la operación patrimonial y su promoción.

– Área RC2 Margen Izquierda Casco Histórico:

Es una actuación en suelo urbano no consolidado dentro del Conjunto Monumental del Casco Histórico en la que se posibilita la promoción de viviendas.

Los objetivos de la ordenación propuesta pretenden la recuperación de un paseo de ribera junto al río Oria, la peatonalización del Casco Histórico mediante la ejecución de una conexión rodada bajo rasante con los aparcamientos del Área RC3 y la construcción de un muro de encauzamiento desde la Iglesia de Santa María hasta el puente de Arramele.

Ambas Administraciones Públicas entienden que para su ejecución deben ser dedicados todos aquellos recursos que sean necesarios dada la complejidad que representa urbanísticamente el desarrollo del ámbito.

Cuarto.– El Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales del Gobierno Vasco, en el ejercicio de sus competencias en materia de vivienda, precisa suelo para la construcción de viviendas de protección oficial en aquellos municipios, entre ellos Tolosa, en los que existen necesidades acreditadas de vivienda, con destino a aquellas familias, con escasa capacidad de renta que no pueden acceder al mercado libre de vivienda.

En este sentido, ambas Administraciones Públicas entienden conveniente el establecimiento de una política estable de colaboración mediante la formulación de un programa de promoción de vivienda protegida en el que se contemplen actuaciones a corto, medio y largo plazo.

Ambas Administraciones Públicas entienden conveniente que sea el Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales del Gobierno Vasco el encargado de acometer algunas de las nuevas promociones de vivienda protegida previstas en estos suelos. A tal fin, se redactarán y suscribirán en un momento posterior los oportunos convenios de colaboración que determinarán entre otras cuestiones el título por el que se producirá la transmisión de los inmuebles. Dichos convenios se sujetarán a los principios establecidos en los expositivos siguientes.

Quinto.– El Decreto Legislativo 2/2007, de 6 de noviembre, de aprobación del Texto Refundido de la Ley del Patrimonio de Euskadi, requiere en su artículo 43, para la adquisición de bienes inmuebles el procedimiento de concurrencia, pero en el número 1 del mismo artículo se posibilita la contratación directa, previa autorización del Consejo de Gobierno, cuando concurran, como en el presente caso, circunstancias de urgencia en la adquisición y las condiciones del mercado.

El Decreto Legislativo 2/2007, de 6 de noviembre, de aprobación del Texto Refundido de la Ley del Pa-

onartzeko denaren 38. artikuluak agintzen duenez, Jaurlaritzaren Kontseiluaren onespena behar da ondasun higiezinak doan eskuratzeko, betiere Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuak proposatuta, eskuratzeak baldintza edo erabilera konpromiso bereziren bat badakar berarekin--kasu honetan bezalaxe-.

Honako eragiketa hau proposatu da: Tolosako Udalari udalarena den higiezinaren gainean eratu behar den azalera-eskubidea erostea, hirigintza-eraikigarritasun eta guzti, babes ofizialeko etxebizitzak sustatzera bideratuta; transmisio horren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak hartuko du bere gain dagozkien eraikinak eraikiko direla bermatzeko betebeharra.

Azkenean ezarriko den eskuratzeko prezioak ezin izango du gainditu babes ofizialari buruzko indarreko legedian ezarritako lurzoruaren gehienezko balio eragingarria.

Aldeak aurretik ados jarriz gero, prezio hori osorik edo partzialki ordain daiteke lokalaren azalera eraikia emanez, edo udalaren hirigintza-jarduketak gauzatzearen ondorioz etxea utzarazitako legezko etxe-okupatzaileei etxebizitza berria emateko eskubidea bermatzera bideratutako etxebizitzak emanez.

Seigarrena.– Akordio hau sinatu duten herri-administrazioen ustez, behin betiko onartua dagoen urbanizazio-proiektuari jarraiki jardungo denez, urbanizatzeko obra horiek ez dira egongo Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Udal Zergaren eraginpean.

Zazpigarrena.– Lurzoruari eta hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 17. eta 81. artikuluek adierazten dutenez, plangintzak komunitate-ekipamendu gisa sailkatu ahal izango ditu lurrak, bereziki bizitegi-erabilera duten areetan zuzkidura-alojamenduak ezartzeko, aldi baterako alojamenduak eta premia larria duten kolektiboentzako alojamendu sozialak barnean hartuta. Gainera, hiri-lurzoru finkatuan une honetan eskuragarri dauden lursailak ere xede horretara bideratzeko aukera izango da, betiere bestelako gizarte-beharrei erantzuteko behar adinako ekipamendu-lursailak eskuragarri daudela egiaztatzen bada.

Bi herri-administrazioen ustez, etxebizitza babestua sustatzeko orain artean elkarrekin garatu duten politika osatu egin behar da, zuzkidura-alojamendu horiek gauzatuz.

Zortzigarrena.– Bien interesak, konpromisoak eta ekarpenak egoki bideratzeko, bi aldeek Konpromiso Akordio hau izenpetu dute honako klausula hauen arabera

trimonio de Euskadi, requiere en su artículo 38 para la adquisición de bienes inmuebles a título gratuito la aprobación por el Consejo de Gobierno, a propuesta del Consejero del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales si, como en el presente caso, la adquisición lleva consigo alguna condición o compromiso de uso específico que genere gasto.

Dentro del marco de las actuaciones establecidas en este convenio se plantean operaciones de compra al Ayuntamiento de Tolosa del derecho de superficie a constituir sobre el inmueble de titularidad municipal, junto con sus correspondientes edificabilidades urbanísticas, destinados a la promoción de viviendas de protección oficial, asumiéndose por la Comunidad Autónoma del País Vasco en virtud de dicha transmisión la obligación de garantizar la construcción de las correspondientes edificaciones.

El precio de adquisición que fuese finalmente determinado no podrá rebasar la cuantía máxima asumible en concepto de repercusión de suelo en la legislación vigente de protección oficial.

Este precio podrá ser abonado total o parcialmente previo acuerdo por las partes mediante la dación de superficie construida de local equivalente, así como de viviendas destinadas a garantizar el derecho de realojo de ocupantes legales de vivienda que deban ser desalojados en ejecución de actuaciones urbanísticas municipales.

Sexto.– Las Administraciones Públicas suscribientes estiman que dado que se actuará de conformidad con un proyecto de urbanización aprobado definitivamente, la no sujección de tales obras de urbanización al Impuesto Municipal sobre Construcciones, Instalaciones y Obras.

Séptimo.– La Ley 2/2006, de 30 de junio, de suelo y urbanismo, establece en sus artículos 17 y 81 señala que el planeamiento podrá calificar específicamente terrenos como equipamiento comunitario en áreas e uso predominantemente residencial con destino a alojamientos dotacionales, tanto para alojamiento transitorio como para alojamientos sociales de colectivos especialmente necesitados, pudiendo incluso en suelo urbano consolidado destinar a este fin parcelas ya existentes siempre que se acredite la disponibilidad de parcelas de equipamiento suficientes para atender otras necesidades sociales que lo requieran.

Ambas Administraciones Públicas entienden que la política conjunta de promoción de vivienda protegida que han realizado debe complementarse con la ejecución de estos alojamientos dotacionales.

Octavo.– Para la adecuada instrumentación de los respectivos intereses, compromisos y aportaciones, ambas partes proceden a formalizar el presente Acuerdo de Compromisos, de acuerdo con las siguientes

KLAUSULAK:

Lehenengoa.– Lankidetza Hitzarmen honen helburua da etxebizitza babestua sustatzeko programa bat ezartzea Tolosako udalerrian, eta hain justu, Gorostidi-Voith arean, Laskorain arean, RC2 Ezkerraldean eta Olarrain arean, eta erakundearteko lankidetzaren esparruan, aipatu eremu urbanistiko horien garapen urbanistiko eta soziala sustatzea, estrategikotzat jotzen baitira Tolosaren eta tolosarren mesedetarako.

Bigarrena.– Tolosa Udalak eta Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokor berriaren hirigintza-dokumentua izapidetzeko konpromisoa hartu dute, behin betiko onartu arte.

Konpromiso horren barnean hartzen da beharrezko hirigintza-dokumentuak izapidetzea ere; esate baterako, antolamendu xehatuko planak, birpartzelatze-proiektuak, urbanizazio-proiektuak, xehapen-azterlanak eta oinarrizko eta egikaritzako eraikuntza-proiektuak.

Hirugarrena.– Laskorain arearen eta Olarrain sektorearen eremuei dagokienez, eta garrantzi estrategikoa dutenez, Tolosako Udalak eta Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak hitz egiteko konpromisoa hartu dute, Lankidetza Hitzarmen hau garatzeko beharrezko Lankidetza Hitzarmenak negoziatzeko; hitzarmen horietan, besteak beste, honako hauek zehaztuko dira: eremu bakoitzean egingo diren sustapenak eta udal-higiezinen transmisio-prezioa, baita ordaintzeko modua edo Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren bestelako partaidetza ere.

Eremu horietan eraikiko diren etxebizitza babestuen erabiltzaileak hautatzeko eta horiei esleitzeko prozedura arlo horretan indarrean dagoen araudiaren arabera egingo da.

Laskorain arearen eta Olarrain sektorearen eremuetako etxebizitzak (hau da, erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzak azalera-eskubidean edo errentamendu babestuan jartzeko etxebizitza sozialak) zer erregimen juridiko eta ekonomikoren pean sustatuko diren ados jarrita erabaki beharko da sustatzeko garaian, Etxebizitza Euskal Zerbitzuan erregistratutako udalerriko eskatzaileen ezaugarrien arabera.

Nolanahi ere, bi herri-administrazioek une honetan adierazi dute eremu horietan egin daitekeen errentamenduko babes publikoko etxebizitza-sustapen handiena bultzatu nahi dutela.

Laugarrena.– Gorostidi-Voith areari dagokionez, bi aldeek honako hau erabaki dute:

CLÁUSULAS:

Primera.– El objeto del presente convenio de Colaboración es establecer un programa de promoción de vivienda protegida, en el término municipal de Tolosa, concretamente en el Área Gorostidi-Voith, en el Área Laskorain, en el Área RC2 Margen Izquierda y en el Sector Olarrain, y en el marco de la colaboración interinstitucional promover el desarrollo urbanístico y social de los citados ámbitos urbanísticos, considerados como estratégicos, en beneficio de Tolosa y de los y las Tolosarras.

Segunda.– El Ayuntamiento de Tolosa y el Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales, se comprometen a tramitar hasta su aprobación definitiva, el documento urbanístico de nuevo Plan General de Ordenación Urbana de Tolosa.

Dicho compromiso se extiende a la tramitación de los oportunos documentos urbanísticos que fuesen necesarios tales como planes de ordenación pormenorizada, proyectos de reparcelación, proyectos de urbanización, estudios de detalle y proyectos de edificación básico y de ejecución.

Tercera.– El Ayuntamiento de Tolosa y el Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales, respecto de los ámbitos Área Laskorain y Sector Olarrain, y atendiendo a su importancia estratégica, se comprometen a entablar conversaciones relativas a la negociación de los oportunos convenios de cooperación de desarrollo de este convenio de colaboración en los que se determinen, entre otras cuestiones, las promociones que se realicen en cada ámbito y el precio de transmisión de los inmuebles municipales, así como su forma de pago, u otra participación del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales.

El procedimiento de selección y adjudicación a sus usuarios de las viviendas protegidas que se realicen en estos ámbitos se ajustará a la normativa vigente en esta materia.

El régimen jurídico y económico concreto bajo el que se promocionarán las viviendas de los ámbitos Área Laskorain y en el Sector Olarrain, esto es, viviendas de protección oficial de régimen general en derecho de superficie o viviendas sociales para su arrendamiento protegido, se determinará de común acuerdo en el momento de acometer su promoción a la vista de las características de los demandantes del municipio inscritos en el Servicio Vasco de Vivienda.

Ambas Administraciones Públicas, no obstante, manifiestan en este mismo momento su voluntad de impulsar la mayor promoción de vivienda de protección pública en arrendamiento protegido que sea posible implantar en estos ámbitos.

Cuarta.– Respecto al Área Gorostidi-Voith ambas partes acuerdan concretamente lo siguiente:

Tolosako Udalak lehiaketa publikoaren deialdia egiteko konpromisoa hartu du, eremu horretan aurreikusitako 148 etxebizitza babesturen itunpeko sustapenerako, eta esanbidez adierazi du 148 etxebizitza horietatik, 104 erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzen erregimen juridiko eta ekonomikoaren pean sustatuko direla, eta 44 etxebizitza sozialen erregimen juridiko eta ekonomikoaren pean (hain justu, 4. atarian kokatutakoak).

Halaber, lehiaketa zuzenduko duten baldintza-agirietan ere honako hau txertatzeko konpromisoa hartu du: esleipendunak Euskal Autonomia Erkidegoari saldu behar dizkiola 44 etxebizitza sozialak, haiei loturiko eranskin eta guzti, eta besterentzeko prezioa etxebizitzen kalifikazio-prezioa izango dela, dagokion BEZ erantsita.

Konpromiso hori betetzeko, aldez aurretik behin betiko onartu behar da Birpartzelatze Proiektuaren dokumentua; izan ere, dokumentu horren bidez egiaz gauzatuko da hirigintza-jarduketak eragindako gainbalioetan Udalak duen partaidetza.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak etxebizitza horiek erosteko konpromisoa hartu du, lehen aipatutako baldintzei jarraiki, betiere errentamendu babestuaren erregimenean esleitzeko. Dena den, konpromiso hori Jaurlaritza partaide den Alokabide sozietatearen bidez gauza daiteke.

Ondare-eragiketa horrek eragindako gastu guztiak (Lurren Balio Gehitzearen gaineko Udal Zerga izan ezik) Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaiak hartuko ditu bere gain.

Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak konpromisoa hartu du Tolosa izendatzeko Gorostidi-Voith arean etxebizitzak sustatzeko interesa duen udalerri bakartzat; hori dela-eta, Tolosan erroldatutako jendeak soilik parte hartu ahal izango du esleipen-prozesuan.

Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak honako konpromiso hau hartu du: esleipen-prozedura arruntetik kanpo uzteko behar adina etxebizitza (28 inguru), eremu horren hirigintza-kudeaketaren barruan eraisten diren etxebizitzetako legezko etxe-okupatzaileei etxebizitza berria emateko eskubidea bermatze aldera. Bereizketa horretan sartuko dira bai erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzak, baita etxebizitza sozialak ere, okupatzaile horien diru-sarreren arabera.

Tolosako Udalak Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren Gipuzkoako Lurralde Ordezkaritzan aurkeztu behar du etxebizitza berria emateko eskubidea egiaztatzeko eta etxebizitza-esleipenei ekiteko dokumentazioa, sustapenaren behin-behineko kalifikaziotik kontatzen hasita hiru hilabeteko epean.

El Ayuntamiento de Tolosa se compromete a convocar concurso público para la promoción concertada de las 148 viviendas protegidas previstas en dicho ámbito, señalando expresamente que 104 se someterán al régimen jurídico y económico de las viviendas de protección oficial de régimen general y 44 se al régimen jurídico y económico de las viviendas sociales (concretamente las ubicadas en el Portal 4).

En los pliegos que regirán el concurso se compromete asimismo a introducir la obligación del adjudicatario de vender a la Comunidad Autónoma del País Vasco las 44 viviendas sociales, junto con sus respectivos anejos vinculados, siendo su precio de enajenación el resultante de la calificación de las mismas, más el IVA correspondiente.

Este compromiso se condiciona a la previa aprobación definitiva del documento de Proyecto de Reparcelación a través del cuál se produzca la efectiva participación del Ayuntamiento en las plusvalías derivadas de la acción urbanística.

El Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales del Gobierno Vasco, por su parte, se compromete a adquirir las citadas viviendas en las condiciones antes señaladas, así como a adjudicarlas en régimen de arrendamiento protegido. Este compromiso no obstante podrá ser ejecutado a través de la sociedad participada Alokabide.

La totalidad de los gastos derivados de esta operación patrimonial salvo el Impuesto Municipal sobre el Incremento del Valor de los Terrenos se asumen por el Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales del Gobierno Vasco.

El Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales del Gobierno Vasco se compromete a declarar único municipio interesado en la promoción de las viviendas del Área Gorostidi-Voith a Tolosa, motivo por el que únicamente podrán participar en el proceso de adjudicación las personas empadronadas en el mismo.

El Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales del Gobierno Vasco se compromete a excluir del procedimiento ordinario de adjudicación las viviendas necesarias (28 aproximadamente) a fin de garantizar el derecho al realojo de los ocupantes legales de vivienda que deban ser derribadas en el propio ámbito en el curso de su gestión urbanística. Esta exclusión se realizará bien respecto de las viviendas de protección oficial de régimen general bien respecto de las viviendas sociales, según proceda de acuerdo con los ingresos de estas personas.

La documentación precisa para acreditar dicho derecho de realojo y proceder a realizar las oportunas adjudicaciones de vivienda deberá ser presentada por el Ayuntamiento de Tolosa en la Delegación Territorial de Gipuzkoa del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales del Gobierno Vasco en el plazo de tres meses a contar desde la calificación provisional de la promoción.

Eremu horren kudeaketa integrala egiteko interesa duen sustatzaileak hartuko du beren gain etxebizitza berria ematearen kostua, oso-osorik.

Orobat, 5 etxebizitza gordetzeko konpromisoa hartu du, udalaren hirigintza-jarduketen ondorioz etxebizitza berria emateko eskubidea bermatzearren. Kostu horiek Tolosako Udalak hartuko ditu bere gain.

Tolosa Udalak konpromisoa eta erantzukizuna hartu du sustapen honen xede diren erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzen zozketa egiteko, betiere Voith-Gorostidi areako babes ofizialeko etxebizitzen erregimen juridikoa arautzen duten oinarriei jarraiki; oinarri arautzaile horien behin betiko onarpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren 73. alean argitaratu zen, 2006ko apirilaren 19an.

Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak zuzenean esleituko ditu errentamendu babestuko etxebizitza sozialak, edo bestela, Tolosa Udalak, indarreko araudi autonomikoari jarraiki.

Bosgarrena.– Tolosako Udalak honako konpromiso hau hartu du: ekipamendurako bideratuta dagoen udallursailen batean -betiere oraindik garatu gabe dagoen edo, eremuren batean egiten den hirigintza-kudeaketaren ondorioz, etorkizunean lortzen den lursailen batean, alegia- aldi baterako alokairuko alojamenduen sustapena egiteko aukera aztertzea batetik, eta aukera hori komenigarria ote den aztertzea bestetik.

Hori horrela, Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak lursail hori aztertzeko konpromisoa hartu du, baita alojamendu horiek diseinatzeko, eraikitzeko eta kudeatzeko proposamena egitekoa ere.

Azkenean bi Administrazioek alojamendu horiek egin daitezkeela eta alojamenduok egitea komenigarria dela irizten badiote, Tolosako Udalak honako hau egiteko konpromisoa hartu du: lursaila ematea, horretarako egingo den doako lagapen-akordioaren bitartez. Era berean, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak akordio hori betearazteko konpromisoa hartu du.

Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak konpromisoa hartu du Tolosako Udalaren Osoko Bilkuraren erabakia Eusko Jaurlaritzaren Ogasun eta Herri Administrazio Sailari jakinarazteko, Sail horrek Jaurlaritzaren Kontseiluaren bidezko onarpena izapidetu dezan.

Klausula honetan aurreikusitako ondare-eragiketa eskritura publikoan formalizatuko da, adierazitako doako lagapena onartzen duen Jaurlaritzaren Kontseiluaren erabakiaren egunetik hasi eta hilabeteko epean.

Seigarrena.– Erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzen sustapenei dagokienez, Eraikuntza, Obra eta Instalazioen gaineko Udal Zergaren gutxieneko tasa (% 2) aplikatzeko konpromisoa hartu du Tolosako Udalak. Errentamendu babesturako etxebizitza sozialen sustapenei dagokienez, Zerga hori ordaintzetik salbuesteko edo barkatzeko konpromisoa hartu du.

El coste de los aludidos realojos correrá íntegramente por cuenta del promotor interesado en la gestión integral del ámbito.

Asimismo, se compromete a excluir 5 viviendas para garantizar el derecho de realojo de actuaciones urbanísticas municipales, cuyos costes los asumirá el Ayuntamiento de Tolosa.

El Ayuntamiento de Tolosa se compromete y responsabiliza a realizar por su cuenta el sorteo de las viviendas de protección oficial de régimen general objeto de esta promoción de acuerdo con las bases reguladoras del régimen jurídico de las viviendas de protección oficial del área Voith-Gorostidi cuya Aprobación Definitiva se publicó en el Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 73, del 19 de abril de 2006.

Las viviendas sociales en arrendamiento protegido serán adjudicadas bien directamente por el Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales del Gobierno Vasco bien por el Ayuntamiento de Tolosa, de acuerdo con la normativa autonómica vigente.

Quinta.– El Ayuntamiento de Tolosa se compromete a estudiar la posibilidad y conveniencia de realizar una promoción de alojamientos en alquiler temporal sobre alguna parcela municipal con destino equipamental que bien no hubiera sido desarrollada bien pudiera obtenerse en el futuro como consecuencia de la gestión urbanística de algún ámbito.

El Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales del Gobierno Vasco en tal caso se compromete a analizar dicha parcela así como a realizar una propuesta de diseño, construcción y gestión de los aludidos alojamientos.

Si finalmente ambas Administraciones entendiesen posible y conveniente la promoción de dichos alojamientos, el Ayuntamiento de Tolosa se compromete a entregar la parcela mediante la adopción del oportuno acuerdo de cesión gratuita y el Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales a su ejecución.

El Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales del Gobierno Vasco se compromete a comunicar el acuerdo del Pleno del Ayuntamiento de Tolosa al Departamento de Hacienda y Administración Pública del Gobierno Vasco, al efecto de que por el mismo se tramite la oportuna aceptación por el Consejo de Gobierno.

La operación patrimonial prevista en la presente cláusula se formalizará en escritura pública en el plazo de un mes a contar de la fecha del acuerdo del Consejo de Gobierno aceptando la cesión gratuita de referencia.

Sexta.– El Ayuntamiento de Tolosa, se compromete a aplicar en la promociones de vivienda de protección oficial de régimen general el tipo mínimo del 2% en el Impuesto Municipal sobre Construcciones, Obras e Instalaciones. En las promociones de vivienda social para su arrendamiento protegido se compromete, respecto del mismo Impuesto, a su exención o condonación.

Zazpigarrena.– Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak Tolosako ezkerraldean RC2 eremuan egingo den obra publikoa finantzatzeko asmoa duela adierazi du, beti ere, ondare urbanizatua eta eraikia birgaitzeko laguntzetarako dagokion deialdian Sailak ezarritako baldintzak eta betekizunak betetzen badira.

Zortzigarrena.– Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak bere gain hartu dituen konpromiso guztiak (Konpromiso Akordio honetan zenbateko ekonomikoa zehaztu gabe dutenak), aldez aurretik bidezko aurrekontu-izendapenak egin izanaren baldintzapean egongo dira.

Bederatzigarrena.– Bi Herri Administrazioek beharrezko iritzi diote Akordioaren Jarraipen Batzordea eratzeari. Batzorde hori erakunde bakoitzeko bi ordezkarik osatuko dute, eta bere eginkizunak honako hauek izango dira: ezarritako aurreikuspenak eta konpromisoak gauzaraztea, horiek zorrotz betetzeko neurriak proposatzea, etxebizitza babestuen sustapenak egitean sor daitezkeen gatazkak eta/edo interferentziak konpontzea, sustapenen babes-erregimenak une bakoitzean dauden etxebizitza-premietara egokitzea eta/edo mailakatzea eta, oro har, etorkizunean sor daitezkeen gorabehera guztiei erantzutea.

Hamargarrena.– Agiri honetan jasotako betebeharrak ez betetzea kontratua suntsiarazteko arrazoia izango da, eta aldeak lehengo egoera juridikora itzuliko dira. Era berean, bai beste aldeari bai uste oneko besteri eragin ahal izan zaizkien kalte eta galerak ordaindu beharko ditu aipatutako suntsiarazpena eragiten duenak.

Eta adostasuna eta uste ona erakusteko, dokumentu hau izenpetu dute lau aletan, idazpuruan adierazitako lekuan eta egunean.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburua,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.

Tolosako Udaleko alkate-udalburua,
JOKIN BILDARRATZ SORRON.

Séptima.– El Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales del Gobierno Vasco manifiesta su intención de colaborar económicamente en la financiación de la obra pública que se lleve a cabo en el Área RC2 Margen Izquierda de Tolosa, previo cumplimiento de las condiciones y requisitos que a tal efecto establezca dicho Departamento en la oportuna convocatoria de ayudas en materia de rehabilitación del patrimonio urbanizado y edificado.

Octava.– La totalidad de los compromisos asumidos por el Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales del Gobierno Vasco, no determinados en su cuantía económica en el presente Acuerdo de Compromisos, estarán supeditados a la existencia previa de las oportunas consignaciones presupuestarias.

Novena.– Ambas Administraciones Públicas entienden precisa la constitución de una Comisión de Seguimiento del Acuerdo, formada por dos representantes de cada una de ellas, y cuyo cometido será la observancia de la ejecución de las previsiones y compromisos estipulados, la proposición de medidas encaminadas a su estricto cumplimiento, la resolución de los conflictos y/o interferencias que pudieran ocasionarse en el curso de la realización de las promociones de viviendas protegidas de referencia, la acomodación y / o graduación de los regímenes de protección de las promociones a las necesidades de vivienda que existan en cada momento o realojo y en general, el atender todas aquellas cuestiones incidentales que puedan surgir en el futuro.

Décima.– El incumplimiento de las obligaciones contenidas en el presente documento, será causa de resolución del contrato, retornado las partes a su situación jurídica primitiva, con la obligación por parte del causante de dicha resolución de indemnizar todos los daños y perjuicios que se hayan causado, tanto a la otra parte como a terceros de buena fe.

Y en prueba de conformidad y buena fe, firman el presente documento por cuatriplicado ejemplar, en el lugar y fecha señalados en el encabezamiento.

El Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.

El Alcalde-Presidente del Ayuntamiento de Tolosa,
JOKIN BILDARRATZ SORRON.